

SAN

MAR

TIN

*Jaiyek*

Dramaixo

2023

Ekainak 30  
Uztailak 1-2-3



*izan herri, egin irri!*



## AGURRA

Etapa barri honi ekitteko modu hobiaurik ez dogu topetan, jaixetan ondo pasau daizuen opa egittie baino. Zeuek eta zeuen ingurukuek alkarrekin datozen egunotan ondo pasau deizuen espero dogu, urtez urte eskuzabaltasunez jai honeik antolatzen gabitzen danon gogue hori izeten baitta. Herrixe bizirik dauela ondo erakusten dau, herriko eragile eta taldiekin batera, antolatu dogun jai programa eder honek, eta beste behin, eskerrik asko eurei, eta hurrengo egunetan zerbitzue emuten egongo zarien danoi; zuon danon ekarpena ezinbestekue izengo da-ta, jai on batzuk pasetako! Duda barik, herri bizi eta bizigarri bat eitteko lanien jarraituko dogu, gogoz. Eta, seguru gaz zeuen danon laguntzaz hori posible ingo dogule.

Eta aurten be, gutxiau izen barik, elkar zaintzan eta umore onez, eraso bariko jai sano batzuk ospatu daigun opa dotsuegu, ume, gazte, heldu eta nagusixoi.

Aramaixo jaixetan! Barriketan, dantzan, olgetan!!

Ondo pasau!

Iban Herrarte Arana  
Alkatea

*KARTEL LEHIAKETAREN Irabazlea:*  
*Naia Bailez Kortabarria*



ARAMAIXO

# Jai egitaraua

## EKAINAK 29, EGUENA

**18:00** Rock Eskolaren emanaldixe Kultur Etxien  
*Papargorri Eskolaniak antolatute*

## EKAINAK 30, BARIKUE

**19:00** Anbotoko Mariren etorrera

**19:00** Txupinazue eta pregoie

**19:05** Kalejira Trikitixa eskolako kideekin  
*Triki-Kalejira Trikitixa Taldiek antolatute*

**19:05** Kalejira Herriko txistularixekin

**19:05** Buruhandi eta erraldoiek

**19:30** Pelota txapelketako finalak  
*Aramaio Pilota Taldiek antolatute*

**Ostien** Lehenengo mailako afizionatuen pelota partida  
*Aramaio Pilota Taldiek antolatute*

**20:00** Txosnen irekiera

**20:00** Jainekin Txaranga taldiaz kalejira

**22:00** DJ Kaktus "Bihurriak Gara" dantzaldixe

**00:00** Kontzertuek txosnetan

ZOPILOTES TXIRRIAOS / MCD



## UZTAILAK 1, ZAPATUE

- 10:00** Patin hockey partiduek  
*Burdinola Irristaketa Klubak antolatute*
- 11:30** Umiendako jolasak
- 12:00** Patata-tortilla herri txapelketie  
*(Osagaixek: patatak, olixue, gatza eta arrautzak antolakuntzak jarriko ditte. Sue, partehartzailien esku)*
- 12:30** Izenbarekuak Txaranga taldiaz kalejira  
*Vital Fundazioak eskeinitte*
- 16:30** Briska ta mus txapelketako izen emutie  
*Alaiak Jubilatuen Elkartiek antolatute*
- 17:00** Briska ta mus txapelketa  
*Alaiak Jubilatuen Elkartiek antolatute*
- 17:00** Tiro plato txapelketa  
*Kurtzetagain Elkartien eskutik*
- 18:00** Deabrukeriak "Plaza Abordaia" emanaldixe
- 19:00** Green Grass - Gazte Asanbladak Antolatute
- 19:00** Ping Pong Txapelketie  
*Gazte Asanbladak antolatute*
- 19:00** Meza  
*Bizente Abesbatzak lagundute*
- 20:00** JM Dantzaldixe
- 22:30** JM Erromerixie
- 00:00** Kontzertuek txosnetan  
**EIRE / ETXEPE / MUTIKO, TATTA TA DENSO**
- 05:00** Jolasak Txosnagunien  
*Gazte Asanbladak antolatute*

## UZTAILAK 2, DOMEKA

**11:00** Diana herriko txistulariekin

**11:30** Puzgarririk umiendako, frontoien

**18:00** Street Boulder Txapelketie  
*Gazte Asanbladak antolatute*

**18:15** Herriko ume jaioberrixen  
harrera, Elizako eskaileretan

**18:30** Herriko ume jaioberrixen  
ongi torrixen plazan



**Ostien** Dantza erakustaldixe  
*Lagun Artean Dantza Taldiek antolatute*

**20:00** Eusko Label parrillada

**20:00** Dantza plaza Mulixka taldiaz

**22:00** Julen Axpe Furgonologia

**23:30** Berba pasie  
*Gazte Asanbladak antolatute*

**Ostien** Korto Lehiaketa  
*Gazte Asanbladak antolatute*

*Frantziako Tour-eko etapa Aramaiotik pasatuko da gaur, domekan, uztailaren 2an. Udalak jaietako programa moldatu du.*

*Baina kontuan izan etapak eragin handia izango du ordu konkretu batzuetan:*

**10:30** *inguru errepidea itxiko dute (kontuan izan lasterketa*

*Gasteiz aldetik etorriko denez, alde hori lehenago ixten joango direla).*

**11:30** *inguru lasterketa aurreko propaganda ibilgailu-karabana pasako da.*

**13:30** *inguru aurrekusten da lasterketa pasatzea.*

*Azken kotxearekin batera bidea zabaltzen hasiko dira.*

*Tarte horretan inkomunikatuta geratzen diren herritarrek edozein larrialdi izango balute, 112ra deitu eta handik koordinatuko dute guztia.*

## UZTAILAK 3, ASTELEHENA

12:30 Bapatean Zirku "Adabaki"

13:00 Kantujira

*Alaiak Jubilatuen Elkarteak abesbatza*

16:30 Kuadrillen arteko  
pikie parkien

*Gazte Asanbladak antolatute*



20:00 Orkresta Elektrotxarangiaz animaziñue

21:30 Herri afarixe plazan

*Ostien* Mozorro onenari sari banaketie

*Ostien* Urrezko gibela - Juergista onenandako  
sari banaketie

22:30 Orkresta Elektrotxarangiaz animaziñue

01:00 DJ Gaubela

izan herri, egin irri!

araba  álava  
foru aldundia diputación foral



Goi-mailako  
elikagaiak  
Alimentos de  
calidad superior

Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

# San Martin Jaiak 2023

Ekainak 30 eta  
uztailak 1, 2 eta 3



*15 URTETIK BEHERAKOEN Irabazlea:*

*Unax Camino Altuna*



# EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA MATXISTEN AURREAN

## Zu non zaude?



Aramaioko jaietan eraso matxistarik ez!



BERDINTASUNA

